

ZAZPIGARREN GAIA: ZUZENBIDEAREN ITURBURUAK ZUZENBIDEZKO ESTATUAREN EGITURAKETAN

(Liburuko 1.bolumena, 3.kapitulua 65.or-86.or)

7.1. ZUZENBIDEAREN ITURBURUAK ZER DIREN?

- Tradizioaren arabera duten esangura

- **Arauen sorrera** tradizionalki araua non sortzen zen, hau da, arauen sorburuari egiten zion erreferentzia..
- Estatu liberalaren beharrei egokitua → Legearen nagusitasuna gainerako arau guztien aldean bermatzea; Legearen jatorriak (Parlamentuan sortua izateak, alegia) ohituren aldean legearen gailentasuna dakar: arrazoiari oinarrituriko antolamendua gailen da tradizioari oinarritutakoaren aldean.
- Arauaren **era** edo **moldea** da adierazgarri den bakarra. Edukia garrantzirik gabekoa da.

- Zuzenbidearen iturburuak, arauak sortzeko bide gisa

- **Zuzenbidearen Teoria Hutsa** (Kelsen). Zuzenbidea ez da, aldez aurretik gizartean aurkitzen den zerbait eta, berez, agertzen dena; aldiz, gizartean agintea erabiltzearen ondorioa da.
- Zuzenbidearen **sortzeari buruzko arauak**, lege antolamenduaren ardatz nagusia
- **Eraren** edo **moldearen** arabeko azterketa soila. Arauen arteko berezitasunek moldea dute oinarri, ez edukia.

Gaur egun zuzenbidearen iturburuez mintzatzean arauen sorreraz hitz egiten dugu, guri interesatzen zaizkigu zer motako ezaugarriak bete behar dituzte arauak zilegi sortuak izateko. Zuzenbideak markatutakoaren arabera soilik eratu daitezke arauak. Zuzenbidearen iturburuak, arauak hartzen duten forma. Arauaren **era** edo **moldea** da adierazgarri den bakarra. Edukia garrantzirik gabekoa da. Zuzenbidearen **sortzeari buruzko arauak** mintzatzen ari gara, lege antolamenduaren ardatz nagusia. **Eraren** edo **moldearen** arabeko azterketa soila. Arauen arteko berezitasunek moldea dute oinarri, ez edukia.

- ➔ Lege antolamendua, sistema edo **egituraketa aldakorra**.
- ➔ Arauen baliotasunaren oinarria arau gorenean kokatzen da, baina ez horien edukiarena.
- ➔ Molde egitura hutsa da zuzenbidea.

Zuzenbidearen iturburuen esangura, gaur egun

.Gaur eguneko premia: antolamendu berean biltzen diren **arauak sortzeko hainbat sorleku antolatzea** (Estatuko zuzenbidea, autonomia erkidegoen zuzenbidea, nazioarteko (eta nazioaz gaindiko) zuzenbidea.

Bi motako lege antolamenduak zeuden lege antolamenduaren barruan, gaur gauza asko konplikatu da eta mota askotako lege antolamenduak daude lege antolamenduaren barruan eta zuzenbidearen hainbat sorburu daude (adibidez berria den Europar Batasuna), sorburu guztietatik datozen legeak modu homogeneo eta koherentea izan behar da.

Zuzenbidearen iturburuen egituraketak bere barnean hartzen ditu **arauen sorbidea** eta, baita, horien aplikatzea ere.

Iturburuak: Zuzenbidea sortzeko arauak eta bideak.

. Premiazkoa:

- Arauak haien jatorriaren arabera aztertzea
- Arau bakoitza gainerako arauekin dituen loturak aztertzea

Horrek eramatan gaitu bi motako arauen artean bereiztera: arau zilegiak eta zilegi ez diren arauak. Arauen sortzeari buruzko arauak bete duten edo bete ez baduten arabera izango dira zilegiak edo ez zilegiak. Horri gurean konstituziotasun blokea esaten diogu, hau da arauak sortzeko arauak.

Jadanik, ez da aipagarria, soilik, sortu duen erakundearen araberrako arauen jatorria, baizik eta **iturburu bakoitzak antolamenduko arau orekin dituen loturak.**

Konstituzio auzitegiak arau baten konstituziotasuna kontrolatzean ez du soilik konstituzioarekin bat etorri behar baizik eta konstituzioarekin batera konstituziotasun blokea osatzen duten arau guztiak; konstituzioaren aurkakoa izan daiteke arau bat adibidez ganbera baten erregelamenduaren aurka doanean.

. Zuzenbidearen iturburuak → antolamendu jakin batean **zuzenbidea sortzeko bide zilegiak**. Arau bat sortzeko arauak zilegi betetzean zilegia izango da.

. Arauak sortzea: arau jakin bat sortzeko **zilegitasuna duen erakunde baten eginkizuna**, zehazturiko jardunbidea edo **prozedura** erabiliz.

. Zuzenbidearen iturburuak → antolamendu jakin batean **arau mota zilegiak**.

7.2. ZUZENBIDEAREN ITURBURUEZ OINARRIZKO OSAGAIAK

- Zuzenbidezko Estatua eta arauen sorkuntza

- Espainiako Konstituzioa eta Zuzenbidezko Estatuaren eredia.
- Zuzenbidezko Estatua → Agintea Zuzenbidearen mende; Zuzenbidearen gailentasuna.
- Agintearen erabilerak dituen mugak:
 - Legezkontasuna printzipioa
 - Aginteen banaketa
 - Oinarrizko eskubideen bermea

→ Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpena (1789)

16. artikulua: *“Eskubideen bermea egiaztaturik eta aginteen banaketa ezarririk ez duen ezein gizartek ez du Konstituziorik”*

- Zuzenbidezko Estatua Konstituzioaz eratutako Estatu gisa

- Konstituzioa arau nagusi edo goren gisa
 - Konstituzioa, “iturburuen iturburua”
- Iturburuen egituraketaren oinarriak, Konstituzioak ezarriak (ez, jada, Kode Zibilak)
 - Iturburuen egituraketak Konstituzioak baldintzatuta
- Konstituzioa eta iturburuen egituraketaren konplexutasuna
- Konstituzioa, antolamenduaren batasuna bermatuz, iturburuen aniztasuna egituratzen duen iturburua
 - Iturburuak egituratzen dituzten printzipioak edo irizpideak ezartzen dituen iturburua

- Baliotasuna eta eraginkortasuna

- Iturburuen egituraketa Zuzenbidearen mende
 - Lege antolamenduak mugatzen du iturburu bakoitza sortua izateko eremu edo alor zilegia
 - Iturburu bakoitzaren baliotasun eremua
- **Baliotasuna** → iturburu jakin bati, dagozkion **sortzeari buruzko arauak** bete izateak ematen dion nolakotasuna. Arau bat egoki sortzen denean, halako motako arauak sortzeari buruzko arauak egoki bete direnean arau horrek baliotasuna izango du

→ iturburua antolamenduan **arau zilegi** gisa onartua izateko betebeharreko baldintzak bete izateak ematen duen nolakotasuna. Arau zilegia izango da bakar bakarrik baliotasuna duen arauak.

.Baliotasuna eta hierarkia irizpidea.

- Iturburu baten baliotasun eremua hierarkiaren arabera mugatzen da → Iturburu baten baliotasuna horren gainean kokatzen diren iturburuek mugatzen dute.
- Arau baten baliotasun eremua mugatzen da hierarkia mailan gorago kokatzen diren arauen arabera. Lege bat baliozkoa izango da konstituzioarekin bat datorren neurrian eta ez da baliozkoa izango konstituzioarekin bat ez datorren neurrian.

Hierarkia irizpidearekin mugatuko dugu arau mota baten baliotasun eremua. Ere mugatua etorriko da ganberaren erregelamenduak dionaren arabera.

Arau baten baliotasuna mugatzen dituztenak arau horren gainean (hierarkian) kokatzen direnak izango dira.

Baliotasuna goitik behera mugatzen da, “goitik beherako jausian”

→ Konstituzioak, iturburu goren gisa, mugatzen du iturburu oren baliotasun eremua. Ezin da ordenamenduan egon konstituzioaren kontrako araurik.

Baliotasuna da arau baten aurrean lehen kontuan izan behar dugun kontzeptua eta baliotasuna hierarkiaren arabera mugatzen da; hemendik atera dugu ondorio bat; lege antolamendu batean arau baliogabeak eta baliogabeak daudela.

- **Arau baliogabeak:** Zuzenbidearen sortzeari buruzko arauen haustea edo haustura eman duten arauak. Askotan eragin juridikoa eta ondorio juridikoak izaten dituzte.
- **Arau baliogabeak** → antolamendutik gaitzestea, baliogabetasuna adierazita → arau baliogabeen deuseztatzea → arau ezdeusa edo deuseza.

Ezin da arau bat baliogabea delako antolamendutik gaitzetsi baliogabetzen ez bada, prozesu juridiko luze baten ondorioz. Arau baliogabe bat deuseztatua izateko ordenamenduak prozedura bat izango du eta organo bat izango da horrez enkargatuko duena, modu egokian egiteko hau. Lege antolamenduek emen arazo larri bat ikusten, lege bat sortetik egoki deuseztatu arte denbora pasa da eta seguraski arau hori ondorio juridikoak izan dituela denbora tarte horretan. Zer egin deuseztatua den arau batek deuseztatua izan baino lehen sortutako ondorio juridikoekin? Lege ekonomiaren arazoak

. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna

Arauk deuseztatzearen ondorioak.

Deuseztatze-ondorioak *ex nunc* eta *ex tunc*

. Deuseztasuna eta lege-ziurtasuna

. Deuseztasunaren ondorio kaltegarriak: antolamenduaren *okerren* edo *gaitzen* kontu izatea eta onartzea (MERKL). Merkl esaten zuen arau bat deuseztatzeak batzuetan ondorio askoz larriagoak direla bere horretan gordetzea baino. Ere esaten zuen lege antolamendu guztiak lege antolamenduaren okerrak edo gaitzak onartu behar zituela. Lege antolamendu guztiek bi printzipioen artean ekilibrioa bilatu behar zuen zilegitasuna eta segurtasun juridikoa. Kaltegarriagoa da arau baliogabe batek sortu dituen ondorioak bere horretan gordetzea edo kaltegarriagoa den arau baliogabe batek sortutako ondorio juridikoak ezabatzea. Lege antolamendu batek halako atakaren aurrean baliogabetasunaren larritasunaren inguruan edo arinaren arabera erabaki behar du; zer da larriago legeak sortutako ondorio juridikoak ezabatu (segurtasun juridikoa kolokan) edo legea bere horretan ustea.

Bi motatako baliogabetasunak aurkitzen ditugu: muinari lotutako baliogabetasunak eta muinari loturik ez dauden baliogabetasunak. Lege antolamenduek ez dituzte begiratzen modu berean. Legislazio administratiboak esaten du noiz diren baliogabetasun larriak edo arinak; horretaz aparte legeak esan dezake zein den larria eta zein arina. Nola bi motako baliogabetasunak daude bi motako deuseztasunak daude: deuseztasunak eta deuseztagarritasuna. Oro har administrazio lege orokorretan esaten da noiz gauden baliogabetasun larri baten aurrean eta noiz baliogabetasun arin baten aurrean; deuseztasunak esan nahi du erabat suntsitu behar dela baliogabetasun larriarekin kutsatuta dauden erabakiak (deuseztasunaren deuseztatze-ondorioak ondorio *ex tunc* izango dira; handik aurrera hau da arau sortu den unetik aurrera legeak eragindako ondorio juridiko guztiak desagertu behar dira); aldiz deuseztagarritasuna gertatzen dira baliogabetasun arin batekin (ondorio *ex nunc* izango dira; hau da, araua indarrean egon den bitartean egondako ondorio juridikoak mantenduko dira).

Hau guztia kontraesankorra irudi dezake konstituzio auzitegiaren epaiekin komentatu genuenarekin (konstituzio auzitegiaren epaiak ondorio *ex nunc* dutelako). Nolabait onartzen zaio herritarren borondate politikoa ordezkatzeko duen organo horri kontrakoa demostratzen ez den arte berak esandakoa onartua dela.

. **Eraginkortasuna:** arau batek antolamenduaren barnean ondorioak sortzeko duen gaitasuna, eraginkor izateko gaitasuna. Kontzeptu praktiko bat da. Sortua izan den arau batek eragina duen edo ez kontuan izatea. Eraginkortasunak desberdintzen digu zein motatako arauak izan duten ondorio juridikoak eta zeintzuk ez.

- Eraginkortasun formala: arauaren araberako gaitasuna, antolamenduak arau bati ezagutzen dizkion legezko ondorioak (arauaren eta antolamenduaren arteko lotura).
- Eraginkortasun materiala: arau batek errealitatean ondorioak sortzeko duen gaitasuna -eragingarritasuna- (arauaren eta arautua denaren arteko lotura).

Europar batasunaren estatu kide askoren arau baliodun askok ez dute eraginkortasunik, nola europar batasunak horien ordezkioak ezarri ditu.

Oso konplikatu da baina mota ezberdineko kontzeptuak dira baliotasuna (izaera juridikoari buruzkoa da) eta eraginkortasuna (errealitatearekin loturiko kontzeptua).

- Baliotasuna (argitzen digu gauza oso garrantzitsu bat; araua zilegi sortua izan den edo ez) ↔ eraginkortasuna.

Baliotasunak ez du, berez eta besterik gabe, eraginkortasuna ekartzen; eta ez alderantziz ere

- Arau baliozkoa eta eraginkorra: zilegitasun-baliotasuna.
- Arau baliogabe eta eraginkorra (deuseztatua izan aurretik): izate-baliotasuna.
- Eraginkor ez den arau baliozkoa (beste arau baliozkoekin batera denean).

. Deuseztatzea eta indargabetzea

-Deuseztatzea → Araua baliogabe izatearen ondorioa. Araua baliogabea izateagatik normalean auzitegi batek arau deuseztatzen du, araua baliogabea izateagatik. Honen oinarrian badago arau baten baliogabetasuna.

-Indargabetzea → Araua sortzeko ahalmena duen erakundearen ezeztatze borondatea. Mota horretako arauak sortzeko ahalmena duen organoa bere kolore politikoa aldatzen delako. Honen oinarrian badago arau baten baliotasuna.

Arauak deuseztatze ahalmena

- Administrazioaren barneko deuseztasuna eta epaitegiek ebatsia.
- Konstituzio Auzitegia eta lege maila edo indarra duten arauen deuseztatzea: monopolioa.

- Arauen maila eta indarra

- **Maila:** Arau batek antolamenduan, hierarkiaren arabera, kokapen bat izateagatik duen nolakotasuna.
- **Indarra:** Arau batek besteen aurrean duen eragina, hau da, bere maila hierarkikoari dagokion indarra. Arau bati bere maila hierarkikoa ematen dio arau hori sortzen duen organoak, beraz, parlamentuak sortutako arauak legearen maila izango dute baldin eta legea izateko baldintzak betetzen baditu. Gobernuak sortutako arauak maila erregelamentarioa ematen zaizkie baina konstituzioak horrela esaten duelako. Lege indarra duten arauen kontrola gauzatzen du konstituzio auzitegiak; eta ere konstituzioak horrela erabakituta lege maila duten erregelamenduak. Kontuan izan behar dugu arau bakoitzak duen indarra, arau baten indarra da beste arauen gainean izan dezakeen indarra eta hori bi gauzetan finkatzen da: beherago kokatzen diren arau guztien gainean aldarazteko gaitasuna izango duela arau batek, hau da, indar jakin bat duen arau bat aldatzen bada eragin inmediatea izango du bere menpe dauden arau guztiak aldatuta geldituko direla momentuan legearen indarra dela eta (indar gehiago duen araua bere menpe daudenak aldatzen ditu eta bera baino lehenago sortuak izan zirenak maila berbera edo indar berbera dutenean; *lex superior derogat inferior, lex posterior derogat anterior*).
- Arau batek gainerakoak aldatzeko duen gaitasuna (indar eragilea edo aktiboa).
- Arau batek gainerakoen aldetik aldatua ez izateko duen gaitasuna (indar edo negatiboa)
- Indarra aruaren nolakotasuna da, horren mailak edo balioak ematen ohi diona
→ arau baten berezko indarra haren mailari dagokiona izaten ohi da

-Indarraren ondorioak eta hierarkia maila

Badira arauak bere mailakoek berezko duten bestelako indarraz hornituta daudenak, goragoko maila duten arauak aldarazteko gaitasuna dutenak eta bere maila berberakoek aldatua ez izatekoa ere.

- Indarrean izatea, geldiaraztea eta indargabetzea

.Araua indarrean izatea: antolamenduan araua izatea (sortzen denetik deuseztatzen edo indargabetzen deneino)

. Indarrean izatea eta arauen iragartzea → araua izatearen ezagutaraztea

. E.K. 9.3 art.: “Konstituzioak bermatzen du (...) arauen iragartzea”

. E. K. 91 art.: “Erregeak... Legeak berretsi eta aldarrikatu egingo ditu eta berehala argitaratuak izan daitezzen aginduko du”

.Kode Zibilaren 2.1 art.: “Legeak Estatuko (edo Autonomia Erkidegoetako) Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuak eta 20 eguneko epea igaro ondoren, indarrean izango dira, legeek bestelakorik zehazten ez duten heinean”

- **Araua geldiaraztea edo ahalgabetzea:** indarrean den araua, bere horretan darraien bitartean ondorioak izateko gaitasuna ukatua izatea. Arau baten etendura egoera iragankorra da.
- **Indargabetzea:** maila bereko edo goragoko araua sortzeko ahalmena duen erakundeak arau bat aldatzeko edo ezeztatzeko egintza.

-Arauak iraunaldi mugagabe baterako sortuak, bakan batzuk salbu (xedapen iragankorrak, iraunaldi mugatuko arauak)

- Arau bat indargabetzeak, ohiko kasuetan, beste arau baten beharra du

- Arau indargabetzaileak arau indargabetuaren maila bera edo goragokoa izan behar du → Kronologia irizpidea (*Lex posterior derogat priori*), Hierarkia irizpidearen eremuaren barnean (*Lex superior derogat inferior*)

- Indargabetzeak → arauak eraginkortasuna galtzea

-Salbuespenak

- *Mugaz gaindiko eraginkortasuna* → indargabetzearen ondoko eragina eta ondorioak; gertakariak gertatutakoan indarrean zegoen arau zen eta zabalik dagoen kasu batean aplikatzen jarraitu behar da nahiz eta indargabetua egon.
- *Atzeranzko eraginkortasuna:* indarrean izan aurreko eragina eta ondorioak

7.3. ARAUEN ARTEKO LOTURA IRIZPIDEAK

- ARAUEN ARTEKO LOTURAK ETA KRONOLOGIA IRIZPIDEA

Kronologia irizpideak maila edo indar bereko arauak argitzen dizkigu.

- Arauen hurrenkera eta kronologia irizpidea.
- Kronologia irizpidea eta arauen indarra.
- Arauen hurrenkera eta arauen indargabetzea
- Indargabetzearen motak:
 - Indargabetze berariazkoa: indargabetzen diren arauak, arau indargabetzaileak argiro eta zehazki aipatzen dituenen.

Indargabetze zehaztugabea edo aipatugabea: indargabetzen diren arauak arau indargabetzaileak aipatzen eta zehazten ez dituenen. Bi motakoa izan daiteke:

- Indargabetze adierazi gabea (edo inplizitua): eremu edo esparru batean araubide berria sortzen denean, aurrekoaren indargabetzea adierazi gabe.
- Indargabetze aipatu gabea (edo tazitua): bi arauen artean elkarren kontrakotasuna nabaria denean, aipatua ez bada ere

- Arauen hurrenkera edo segida, auziak bideratzeko arauak (antinomien konponketa) eta bitarteko arauak (elkarren hurren edo ondoren diren arauen artean bitarteko araubidea)

- Arauen atzerazko eraginkortasuna

- Atzerazko eraginkortasuna eta lege-ziurtasuna
- Lege-ziurtasuna eta gizartearen garapena
- Atzerazko eraginkortasunaren mugak
 - E.K. 9.3 art.: “zigor xedapen ez aldekoen, edota gizabanakoen eskubideak murrizten dituzten xedapenen atzeraeraginkortasunaren eza”
 - E.K. 25 art.: atzeraeraginkortasunaren mugak zigorra alorrean: “Inor ere ezin izan daiteke zigortua izan gertatzen diren garaian indarrean diren legeen arabera delituztat, hutsegituztat edo administrazio haustetuztat hartzen ez diren egite edo ez-egiteengatik”.

- ARAUEN ARTEKO LOTURAK ETA HIERARKIA IRIZPIDEA

- Hierarkia irizpidea eta arauen maila eta indarra
- Hierarkia eta esparruaren beratasuna
- Arauen arteko lotura zuzena: beheko arauak gainekoak betetzeko eginbidea dute eta gaineko arauak aldiz behekoak betetzeko eginbidearen eza dute.
- Hierarkia irizpidearen oinarria: legezkotasun printzipioa
 - Konstituziotasun printzipioa
- Hierarkia irizpidea eta arauen gaineko kontrola

- ARAUEN ARTEKO LOTURAK ETA BEREZITASUNA IRIZPIDEA

Estatu baten lege antolamendu orokor baten barnean, hainbat lege antolamendu egon daitezke (eredu federaletan, adibidez: federazioaren lege antolamendua, autonomia duten lurraldeen lege antolamendua...).

- **Berezitasuna:** Erakunde berean prozeduraren berezitasunetan oinarritutako iturburuaren aniztasuna. Argitzen digu azpi antolamendu baten barnean konstituzioak organoen artean eskumenak banatzean zein izango den arau mota bakoitzaren eraginkortasun esparrua.

Gurean mota ezberdineko legeak ezartzen ditu konstituzioak prozedura barruan hainbat berezitasun dituztenak; adibidez lege organikoa.

- Hierarkia loturaren gabezia. Arau bakoitzaren lege-esparruak besteara baztertzen du.
- Berezitasuna irizpideak eskumena-irizpidearen xede bera du.
→ arau bereziak aplikatu ahal izatea, arrunten mende gelditu gabe.
- Berezitasuna irizpidea, eskumena-irizpidea, ikuspegi zabalean.

. Berezitasuna irizpidearen betekizuna: maila eta indarra bereko arau orokorrari mugak ezartzea eta arau berezien lehentasuna bermatzea

. Berezitasuna irizpidearen bilakaera-eremua: lege organikoaren eta lege arruntaren arteko loturak bideratzea; arau bakoitzari dagokion materia-esparruak eskumenik ez duen erakundeak sortutako iturburua baztertzen du

- ARAUEN ARTEKO LOTURAK ETA ESKUMENA-IRIZPIDEA

- **Eskumena-irizpidea:** agintea erakunde bati esleitu izanaren ondorioak bermatzea du xede, antolamendu anitz denean, eremu jakin batean aritzeko halako bat, soilik, zilegitasunaz hornituz.
- Materia-esparruak eskumenaren arabera banatzen dira erakundeen artean. Antolamendu anitz sortzen dira, bakoitzak bere iturburu sistema duela.
- Antolamendu bakoitza dagokion erakundeak sortutako iturburuez osatzen da.
- Eskumena ez duen erakundeak ezin du materia-esparru horretan araurik sortu.
- Eskumena-irizpideak hierarkia irizpidea baztertzen du
→ iturburuen erakunde sortzaileen artean bereizten du, bakoitzari dagokion eskumen-alor zilegiak erreserbatuz
- Esparruaren erreserbarik ez dagoenean eskumena irizpideak ezin du halako esparruan edozein erakundek arau zilegiak sortzea galarazi
→ arauen arteko auziak → gailentasun printzipioa
- Eskumen-irizpideak iturburuen arteko lotura zeharkakoak edo ez zuzenak ezartzen ditu
→ bi arau elkarren artean begirunea izateko duten eginbidea, bien artean eta bien gainean kokatzen den arau baten bidez (Konstituzioaren bidez) egiten da.
- Eskumena-irizpideak iturburuen baliotasun eremu desberdinak eratzen ditu, elkarren artean baztertuz.
- Eskumen-eremuaz kanpo sortutako arauen baliogabetasuna ekar lezake eskumen irizpideak (antolamenduaren berezko ezaugarrien arabera) (ahalbide gisa).

7.4. ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO PRINTZIOAK

- ITURBURUEN ANIZTASUNA ETA ANTOLAMENDUEN ANIZTASUNA.
- ANTOLAMENDUAREN BATASUNA ETA ANTOLAMENDUAREN BARNEKO KOHERENTZIA. ARAUEN ARTEKO AUZIAK.
- ANTOLAMENDUAREN BATASUNA ETA KONSTITUZIOZKETA-SUN PRINTZIOA.
- ANTOLAMENDUAREN OSOTASUNA.
 - ZUZENBIDEAREN HUTSUNEAK.
 - BARNEAN EGINDAKO OSATZEA ETA KANPOTIK HARTUTAKOA.
 - ZUZENBIDE OSAGARRIA.

Beraz, lege antolamendua osatzen duten osagaien arteko harremani dagokionez, harreman horiek irizpide batzuen arabera antolatuko dira. Bi irizpide guztiz tradizionalak ditugu: hierarkia eta kronologia (parlamentu batek ezin du baldintzatu iraganean gizarteak izan ahalko duen ideologia = konstituzionalismo ingelesa). Garai batean askiak izango dira; egungo estatu konplexu eta deszentralizatuetan ordea ez. Orobat postulatu tradizional horiek planteatuko arazoak gutxi izan dira. Nolanahi ere, konstituzioari dagokionean afera konplexuagoa da eta muga bat dute zuzenbide sorburu anitzezko antolamenduetan. Eskumen eremuak gauza bat bideratzen du, erakunde bakoitzak, estatuarenak batetik eta lurralde autonomoak bestetik, bakarrik sortu ahalko dituzte eremu horren barnean baliozko arauak sortzeko, konstituzioak ezartzen duen bata eta besteren eskumen banaketa; bi argibide, Kelsenek esan zuen ez zela kasualitatea izan lehendabiziko konstituzioa zeinek baitzuen lege izaera (hain zuzen ere Estatu Batuetakoa) ezta kasualitatez sistema federal baten konstituzioa zen; Kelsenek esaten zuen estatu federal batek konstituzioak indar juridikoa izatearen beharra zuela nola konstituzioak biltzen ditu eskumenen banaketa eta konstituzio horrek adierazten du itun federala eta horrek berme juridikoa behar du eta berme hori bakarrik juridikoa izan daiteke fidagarria izateko.

Azkenik, sistema batzuetan bada laugarren irizpide baten beharra (**berezitasun irizpidea**) (gurean gertatzen da); bakarrik antolamendu batzuetan non ezartzen baitira berezitasunak organo batek eman ditzakeen edo sor ditzakeen mota bereko normen artean non konstituzioak arazo bereziak ezartzen dituen. Legeen artean mota bereziko arauak ezartzen dituen; parlamentuak lege berezi hauek sortzeko prozedurak ezartzen ditu: lege arruntak, autonomi estatutuak, lege organikoak, harmonizaziorako legeak... eremuari eta prozedurari buruzko berezitasunak; nola guztiak legeak dira hauek desberdintzeko **berezitasun irizpidea** behar dugu. Halako hau ez da gertatzen sistema guztietan, gurean gertatzen da batez ere lege organiko eta autonomia estatutuekin, harmonizaziorako legearekin ere egin zen baina Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuen legea.